



ACT- MC-2018/0079

**AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN 2 ZENBAKI DUTEN ARTXIBO ELEKTRONIKOAK
IREKIERAKO AKTA**

**ESKAINZA EKONOMIKOAK ETA FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ BALIOESTEKO
IRIZPIDEAK**

Bileraren gai-zerrenda: GI-3631 errepideko 3,020 eta 4,610 KPen artean, drainatzeko sarea hobetzeko (11-OF-109/2018) obra kontratuaren lizitazioan aurkeztutako eskaintzen 2 zenbaki duten artxibo elektronikoak irekitzea.

Eguna: 2018ko azaroaren 12a

Hasiera/amaiera ordua: 13:15/13:45'

Tokia: Bide Azpiegituretako Departamentuaren erabilera anitzeko 3.gela (Miramon pasealekua, 166.)

Goian aipatutako lekuan eta orduan, Departamentuko idazkari teknikoa, Elixabete Martinez Iruretagoiena, Bide Azpiegituren Birgaitze eta Berrikuntza zerbitzuko burua Susana Luzuriaga Mocoeroa eta Kontratazioa Zerbitzuko Jaione Olaizola Gorrotxategi bertaratu dira 2 zenbakidun artxibo elektronikoen irekiera egiteko.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak agintzen duten eran, bi zenbakidun artxiboak ireki eta irakurri dira. Honako hauek izan dira eskaintzak, BEZik gabe:

Enpresak		Eskaintza ekonomikoa (BEZik gabe)
1	CONSTRUCCIONES ALZOLA, SL	75.912,50 €
2	URBYCOLAN, SL	79.992,06 €

Aurreko guztia kontuan harturik, eta 9/2017ko Legearen 159.artikuluari jarraituz, bileran honako tramiteak egin dira:

- Lizitzaile guztiek baldintza administrazio berezien agiriak eskatzen duena bete dutela egiaztatu da.
- Neurritz kanpoko beherapena duen eskaintzarik ez dagoela (9/2017ko Legearen 149.artikulua) egiaztatu da.
- Esleipen-proposamena izango dela CONSTRUCCIONES ALZOLA, SL enpresarentzat, preziorik baxuena aurkeztu duelako, eta halaxe agintzen baitu baldintza administrazio berezien agiriak (ezaugarrien taularen 16.klausulak). Enpresaren eskaintzaren zenbatekoa 75.912,50 eurokoa da.
- Euskal Komunitate Autonomoko Lizitzaileen eta Enpresa Klasifikatuen Erregistroan Ofizialean egiaztatu da, enpresaren izen-ematea eta enpresak gaitasuneko eta kaudimen baldintzak betetzen dituela.

Enpresari errekerimendua egingo zaio, 9/2017 Legearen 159.4 artikuluaaren arabera.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.
Donostian, 2018ko azaroaren 12an

Jaione Olaizola Gorrotxategi, kontratazio zerbitzuko teknikaria